

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1806

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 31koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, telelaguntza-zerbitzu publikoan alta eskatzeko eredu normalizatu berria ezartzen duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.4 artikulua xedatzen du eskaera-multzoak aurkezteko ereduak eta sistemak prestatu beharko dituztela administrazio publikoek, interesdunek aukera izan dezaten aldi berean eskaera bat baino gehiago aurkezteko, eta aipatutako ereduak interesdunen eskura egongo direla kasuan kasuko egoitza elektroniketan eta administrazio publikoetako erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

Era berean, lehen aipatutako legearen 66.6 artikulua ezartzen duenez, prozedura jakin batean Administrazioak espresuki ezartzen baditu eredu espezifiko batzuk eskaerak aurkezteko, interesdunek nahitaez erabili beharko dituzte eredu horiek

Telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretuaren 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak Eusko Jaurlaritzan gizarte-gaietako eskumena duen zuzendariaren ebazpenez onartutako ereduari jarraikiz egingo dira, eta eredu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Gizarte Zerbitzuen zuzendariaren 2011ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez (ekainaren 30eko EHAA, 124. zk.), telelaguntza-zerbitzu publikoan alta eskatzeko eredu normalizatua onartu zen.

Gizarte Zerbitzuen zuzendariaren 2012ko otsailaren 28ko Ebazpenaren bidez (2012ko maiatzaren 9ko EHAA, 90. zk.), telelaguntza-zerbitzu publikoan alta eskatzeko eredu normalizatu berri bat onartu zen.

Eskabide-eredua aldatu behar dela ikusi denez, aurkeztu beharreko dokumentua sinplifikatzeko eta errazago bete ahal izateko, eskabide-eredu normalizatu berria onartu behar da.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Telelaguntza-zerbitzu publikoan alta eskatzeko eredu normalizatua onartzea. Eredu hori ebazpen honen eranskin gisa sartu da.

Bigarrena.– Telelaguntza-zerbitzu publikoan alta eskatzeko eredu normalizatua eta hura betetzeko jarraibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/betion-telelaguntza/web01-tramite/eu/>

Hirugarrena.– Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 31.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
MARÍA ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO.

ERANSKINA

TELELAGUNTZA ZERBITZU PUBLIKOAN ALTA EMATEKO ESKABIDEA

Izartxoarekin markatutako datuak (*) nahitaezkoak dira

1.– NORK AURKEZTEN DUEN ESKABIDEA*

<input type="radio"/> Interesduna	<input type="radio"/> Ordezkarria
-----------------------------------	-----------------------------------

2.– INTERESDUNAREN DATUAK *

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
Sexua <input type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/> Gizona	Identifikazio zk. NAN/ AIZ	
OTI zk. (osasan-txartel indibiduala)	Jaiotze-data	

Interesdunaren helbidearen datuak

<i>Kalea</i>	Blokea	Zk.	Solairua	Aldea	Atea
PK	Udalerria	Lurralde Historikoa			
1. telefonoa	2. telefonoa	Helbidea elektronikoa			

Interesdunaren profila *

- Bakarrik bizi den 75 urtetik gorako pertsona.
- 65 urtetik gorako pertsona, mendetasun-egoera aitortua duena (I., II., III. gradua).
- Mendekotasuna izateko arriskuan dagoen 65 urtetik gorako pertsona (gutxienez 23 puntu balorazio-baremoan). *Oharra: egiaztagiriak erantsi beharko dira.*
- Desgaitasun intelektuala duen eta mendetasuna aitortua duen pertsona.
- Desgaitasun fisikoa duen eta mendetasuna aitortua duen pertsona.
- Desgaitasun sensoriala duen eta mendetasuna aitortua duen pertsona.
- Gaixotasun mental diagnostikatua duen pertsona, mendetasuna aitortua duena.
- Bakartze sozialeko arriskuan dagoen pertsona, oinarrizko gizarte-zerbitzuak detektatu badu telelaguntza-zerbitzuaren bidez erantzun daitezkeen premiak dituela (*oharra: oinarrizko gizarte-zerbitzuaren txostena erantsi beharko da*).

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

3.– ORDEZKARIAREN DATUAK

Atal hau bete behar da soilik telelaguntza-zerbitzuko interesdunaren ordezkaria bada eskabidea betetzen duena, eta **ordezkaritza egiaztatzen duen agiria erantsi beharko da.**

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena			
Sexua <input type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/> Gizona	Identifikazio zk. NAN/AIZ				
<i>Kalea</i>	<i>Blokea</i>	Zk.	Solairua	Aldea	Atea
PK	Udalerrria	Lurralde Historikoa			
1. telefonoa	2. telefonoa	Helbide elektronikoa			
Instalaziorako kontaktua <input type="checkbox"/>					

4.– JAKINARAZPENA*

<input type="checkbox"/> Posta bidezkoa	<input type="checkbox"/> Elektronikoa	
	Kanal telematikoa aukeratzen baduzu, ezinbestekoa da ziurtagiri elektronikoa onartua izatea. Jakinarazpen bat daukazunean, mezu elektronikoa bat edo SMS bat jasoko duzu (jakinarazpen-abisua jasotzeko aukeratu duzun kanalaren arabera), eta horrek adieraziko dizu www.euskadi.eus/nirekarpeta orrira sartu behar duzula jakinarazpenak kontsultatzeko.	
	Abisatzeko kanala	SMS
		Posta elektronikoa

5.– ORDAINTZETIK SALBUESTEKO ESKABIDEA *

<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Oharra: ordaintzetik salbuetsita egongo dira hileko diru-sarrerak IPREMaren parekoak edo txikiagoak dituzten pertsonak (IPREM: ondorio askotarako errentaren adierazle publikoa; urtero eguneratzen da).

EZKONTIDEA EDO IZATEZKO BIKOTEKIDEA

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN/AIZ

<input type="checkbox"/> Adierazten dut nire ezkontidea edo izatezko bikotekidea jakinaren gainean dagoela eta baimena ematen duela Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak dagokion zerga-administrazioari PFEZaren errenta-mailari buruzko datuak eska diezazkion, eskatutako prezioa ordaintzetik salbuetsita dagoela egiaztatzeko.

Oharra: baimenik eman ezean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:

PFEZaren azken autolikidazioa edo, halakorik ez baduzu, lortutako errentei buruzko zerga-datuen egiaztagiria.

6.– DOKUMENTAZIOA KONTSULTATZEA/EGIAZTATZEA

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko ditu honako datu hauek (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua):

- 1) Identifikazio-datuak.
- 2) Errola-datuak.
- 3) Osasun-txartela.
- 4) Mendetasunari buruzko datuak.
- 5) Zerga-datuak, errenta-maila (ordainketatik salbuesteko eskatu bada bakarrik).

Interesdunak horren aurka egiten badu, aldiz, zuzendaritzak ez ditu ofizioz kontsultatuko datu horiek (9. apartatua. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa):

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/065100-capa1-eu.shtml

- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak administrazio eskudunari informazioa eskatzearen aurka nago¹.

7.– BANKUKO DATUAK *

Telelaguntza-zerbitzuari dagozkion ordainagiriak kontu honetan kargatzeko baimena ematen dut

IBAN

Kontuaren titularra _____ NAN/AIZ _____

8.– ADIERAZPENAK/BAIMENAK ***ZERA ADIERAZTEN DUT**

- Eskabide honetako datu guztiak eta erantsitako dokumentuak egiazkoak dira.
- Badakit nire betebeharra dela inguruabar pertsonaletan eta ondarearen inguruabar ekonomikoetan izandako edozein aldaketa jakinaraztea 30 eguneko epean.
- Eskabide honen xedearekin zerikusia duten dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut.
- Harremanetarako pertsonen baimena dut telelaguntza-zerbitzua emateko datu pertsonalak jakinarazteko, eta, baimena eman aurretik, datu horiek tratatzeko helburuaren berri izan dute.

BAIMENA EMATEN AL DIOZU Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari kontsultak egin diezazkion eta datuak eta txostenak eska diezazkion Euskal Osasun Zerbitzuari edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten beste osasun-erakunde eta administrazio batzuei, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira zure osasun- eta gizarte-egoeraren berri izateko, betiere konfidentzialtasun-bermearekin eta eskatu duzun telelaguntza-zerbitzu publikoa eskuratzeko eta zerbitzu hori mantentzeko helburu bakarrarekin?

- Bai Ez

¹ Kasu horretan, egiaztagirak aurkeztu beharko dituzu.

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

BAIMENA EMATEN AL DIOZU Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari eskabidean jasotako datuak eta eskabidea ebazteko prozeduratik eta telelaguntza-zerbitzua garatzeko jarduketa guztietatik eratorritako datuak Euskal Osasun Zerbitzuari edo beste osasun-erakunde batzuei, babes zibilaren eta larrialdien arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioei emateko, eskatu duzun telelaguntza-zerbitzua emateko helburu bakarrarekin?

Bai Ez

9.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Eskabidean jasotako datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta telelaguntza izeneko tratamendu-jardueran sartuko.

- **Arduraduna:** Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- **Xedea:** telelaguntza-zerbitzu publikoa kudeatzea.
- **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da aplikatu behar diren lege-betebeharrak betetzeko.
- **Eskubideak:** datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko eta haren aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarriaz azaltzen den bezala.
- **Informazio gehigarria:** datuen babesari buruzko informazio gehiago jaso ahal izango duzu webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/065100-capa2-eu.shtml>

Honako hauek betetzeko:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: <https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>
- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa: <https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>

(e)n,

(e)(a)n

Interesdunaren sinadura

Ordez kariaren sinadura

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

ZERBITZUA EMATEKO DATUAK

Eskabideari alta eman ondoren, eskatzaileari deituko diogu, zerbitzua instalatzeko eguna eta ordua hitzartzeko. Nahiago baduzu lehenengo dei hori harremanetarako pertsonetako bati egitea, markatu «instalaziorako kontaktua» laukia, aukeratu duzun pertsonaren atalean, eta hari deituko diogu.

Hizkuntza *

Zerbitzua emateko lehentasuneko hizkuntza

Euskara Gaztelania

HARREMANETARAKO PERTSONAK * (lehentasunaren arabera)

Harremanetarako 1. pertsona

Pertsona fisikoa			
Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN
Interesdunarekiko ahaidetasuna			
Baduzu interesdunaren etxeko giltzen kopiarik?			<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Instalaziorako kontaktua <input type="checkbox"/>			
1. telefonoa *	2. telefonoa	3. telefonoa	

Harremanetarako 2. pertsona

Pertsona fisikoa			
Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN
Interesdunarekiko ahaidetasuna			
Baduzu interesdunaren etxeko giltzen kopiarik?			<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Instalaziorako kontaktua <input type="checkbox"/>			
1. telefonoa *	2. telefonoa	3. telefonoa	

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

Harremanetarako 3. pertsona

Pertsona fisikoa			
Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN
Interesdunarekiko ahaidetasuna			
Baduzu interesdunaren etxeko giltzen kopiarik?			<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Instalaziorako kontaktua <input type="checkbox"/>			
1. telefonoa *	2. telefonoa	3. telefonoa	

Harremanetarako 4. pertsona

Pertsona fisikoa			
Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN
Interesdunarekiko ahaidetasuna			
Baduzu interesdunaren etxeko giltzen kopiarik?			<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Instalaziorako kontaktua <input type="checkbox"/>			
1. telefonoa *	2. telefonoa	3. telefonoa	

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Eskabidean jasotako datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta telelaguntza izeneko tratamendu-jardueran sartuko.

- **Arduraduna:** Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- **Xedea:** telelaguntza-zerbitzu publikoa kudeatzea.
- **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da aplikatu behar diren lege-betebeharrak betetzeko.
- **Eskubideak:** datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko eta haren aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
- **Informazio gehigarria:** datuen babesari buruzko informazio gehiago jaso ahal izango duzu webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/065100-capa2-eu.shtml>

Honako hauek betetzeko:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: <https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>
- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa: <https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>